



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO ABENDUAREN 22AN
ARRATSALDEKO 17:45EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- VICTORIO LUZURIAGA USURBIL S.A.REN IZENEAN BEGOÑA DE LOS MOZOS ANDEREARI AA.SS.ETAKO A-77 (TE) ELOR AZPI IZENEKO EREMUAN KOKATURIKO LANTEGIAN JANGELA ETA SUKALDE INDUSTRIALA EGOKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0166

2014ko apirilaren 14an Begoña de los MOZOS Olaso andereak VICTORIO LUZURIAGA USURBIL S.A.ren izenean aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Fagor-V Luzuriaga lantegian jangela eta sukalde industrialala egokitzeke udal baimena eskatzen du . Eskaerarekin batera obren exekuzio proiektua aurkeztu du.

2014ko maiatzaren 23an Osasun Sailak aldeko txostena igorri zion Usurbilgo Udalari.

2014ko uztailaren 17an Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Udalari jakinarazpena bidali zion , jangela eta sukalde industrialaren muntaketak jatorrizko instalazioaren aldaketa esanguratsu edo funtzezkorik ez dakarrela jakinaraziz.

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILAREN TXOSTENA

2014ko azaroaren 26 datarekin Ingurumen sailburuordeark hartutako ebazpenaren bitartez ingurumen baimen bateratua aldatu eta eraginkorra egin da VICTORIO LUZURIAGA-USURBIL,S.A. enpresari Usurbil udalerrian burdin nodular galdaketa jarduera garatzeko.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Aranconek, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Teknikari Teknikariak Alkate andreari
OBRA NAGUSIAK



Usurbilgo Udala



FAGOR-V. LUZURIAGA LANTEGIAN JANGELA ETA SUKALDE INDUSTRIALA EGOKITZEKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Fagor-V. Luzuriaga lantegia. Txikierdi. Usurbil
ESKAERA DATA: 2014ko apirilaren 11
ESKATZAILEA: Begoña de los Mozos Olaso, Victorio Luzuriaga- Usurbil S.A. ren izenean
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2014-0166
AURREKONTUA: **71.710,37 € (PEM)**
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: **339,10 €** Fidantza (%120): **406,92 €**

AURREKARIAK

2014ko apirilaren 11n Begoña de los Mozos Olaso andreak, Victorio Luzuriaga- Usurbil S.A. ren izenean, Fagor-V. Luzuriaga lantegian jangela eta sukalde industrialak egokitzeko Exekuzio Proiektua aurkeztu zuen dagokion baimena eskatzeko.

2014ko maiatzaren 23an Osasun Sailak aldeko txostena igorri zion Usurbilgo Udalari.

2014ko uztailaren 17an jangela eta sukalde industrialaren muntaketak jatorrizko instalazioaren aldaketa esanguratsu edo funtsezkorik ez dakarrela jakinarazi zion Udalari Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak.

2014ko irailaren 18an interesdunak dokumentazio osagarria aurkeztu du, hain zuzen, Gobernu Batzordeak 1991eko maiatzaren 21ean buruturiko batzarraldian erabakitako akordioa: Victorio Luzuriaga S.A.-ri irekiera baimena ematea.

Erlazionatuak:

HZ.07/2014-0050 Jarduera.

2014ko azaroaren 28an Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Ingurumen sailburuordearen 2014ko azaroaren 26ko Ebazpena igorri dio Udalari. Ebazpen horren bitartez, ingurumen baimen bateratua aldatu eta eraginkorra egin da Victorio Luzuriaga-Usurbil, S.A. enpresari Usurbil udalerrian burdin nodular galdaketa jarduera garatzeko.

TXOSTENA

Victorio Luzuriaga- Usurbil S.A. ren izenean Txikierdiko Fagor-V. Luzuriaga lantegian jangela eta sukalde industrialak egokitzeko baimena eskatu da, Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batera.

Proiektuaren memorian aipatu bezala, helburua da lantegiko langileei bazkariak ematea ahalbidetuko duen jangela eta sukalde industrialak gauzatzea.

Aurkeztutako dokumentazioa honako hau da: eskaera orria eta Exekuzio Proiektua (injenieriak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia 2014-04-10). Proiektuak, era berean, honakoak barneratzen ditu: Memoria eta Eranskinak (Segurtasun eta Osasun Azterlana, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Kalitate Kontrola, Instalazio Elektrikoaren kalkulua), Planoak, Baldintza Plegua eta Aurrekontua.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, honakoa esan daiteke:

HIRIGINTZA ARAUDIAREN BETETZEA: Birgaitu nahi den lantokiaren kokapena, Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bateginaren arabera (GAO 2013-09-10), hiri lurzoruan kokatzen da, hain zuzen, A-77 (TE) ELOR AZPI eremuan. Dagokion hirigintza fitxak honakoa ezartzen du, besteak beste:

- 1.- **IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK:**
Dauden eraikuntza negusien mantentzea.
(...)
- 3.- **ERABILERA:**
Erabilera industrialak izango da.



Usurbilgo Udala



EKT-REN BETETZEA: Aurkeztu da.

SUTEAREN AURKAKO BABESA: Aurkeztu da._

LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Gogorarazten da, obren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatzerik behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 339,10 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (406,92 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

ONDORIOAK

Goian esandakoari jarraiki, ALDEKO txostena idazten zaio A-77 (TE) ELOR AZPI eremuko lantegian jangela eta sukalde industrialak egokitzeko eskaerari, honako baldintzekin:

Eraikinak EKT eta suteen babeserako araudia bete beharko du ezinbestean.

Behin obra burututa, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla.
- Aldatutako fatxadaren argazkiak, lizentziaren titularrak, lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
- Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketan egiazko kostea adieraziz.

Obra baimenaren epeak:

- Obra hasteko gehienezko epea: 3 hilabete.
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 3 hilabete.
- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 6 hilabete

Jakinazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnitazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.

Hori da esan behar nuena.

Usurbilen, 2014ko abenduaren 4an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Joxean Erasun

Gauzak horrela, eta udal arkitektoaren ALDEKO txostena kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

LEHENDABIZI: Victorio Luzuriaga Usurbil S.A.ren izenean Begoña de los Mozos andereari AA.SS.etako A-77 (TE) ELOR AZPI izeneko eremuan kokaturiko lantegian jangela eta sukalde industrialak egokitzeko Udal baimena ematea, ondorengo balintzapean:

- IDOM injinieritza enpresak 2014ko apirilak 4 datarekin Elkargo Ofizialean zigilaturiko proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Ezinbestean bete beharko dira bai eraikinean eta baita obren egikaritzan ere EKT-k ezarritako neurriak eta suteen babeserako araudia.
- Ezinbestean Irisgarritasun Araudiak (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua) bete beharko da.
- AASS-etako Egoitzazko Eraikuntzen Ordenantzak bete beharko dira.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: 6 hilabete
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 1. *Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.*
 2. *Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarritako ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.*
 3. *Aldatutako fatxadaren argazkiak , 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.*



Usurbilgo Udala



4. *Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.*

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 339,10 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (406,92 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

406,92 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “Fidantza: HZ.04/2014-166” jarriaz kontzeptuan.

HIRUGARRENA: Obrari dagokion Udal zerga ordaindu beharko da.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 17:50ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.